

4.3. Azken xedea > Antzerkia



- Ipuinen argumentuak

HIRU TXERRIKUMEAK:

Argumentuak

Hiru txerrikume basoan bizi ziren. Oso zoriontsuak ziren, baina otsoaren beldur ziren. Otsoa askotan saiatu zen txerrikumeak jaten.

Egun batean, erabaki zuten bakoitzak bere etxea egitea. Txerririk gazteenak lastozko etxea egin zuen, ertainak egurrezkoa eta zaharrenak adreiluzkoa.

Txerrikumerik zaharrenak esan zien beraien etxea ez zela segurua, baina besteek jolastea nahiago zuten.

Hala ere, egun batean, otsoa etorri eta lastozko eta egurrezko etxeak apurtu zituen. Hiru txerrikumeak adreiluzko etxean ezkutatu ziren eta etxeko leiho eta ate guztiak itxi zituzten.

Otsoa tximiniatik sartu zen, baina sua piztuta zegoenez, ipurdia erre eta zitzu bizian alde egin zuen.

Pertsonaiak:

Hiru txerrikumeak eta otsoa.



4.3. Azken xedea > Antzerkia



- Ipuinen argumentuak

ERBIA ETA DORTOKA:

Argumentuak

Erbiak eta dortokak beti eztabaida bera izaten zuten: nor zen bietan azkarrena. Egun batean, lasterketa bat egitea erabaki zuten.

Erbia ziztu bizian joan zen, baina bidean loreak batu, lo-kuluxka egin, jan... egin zuen. Berriz, dortoka poliki-poliki, baina geratu gabe helmugara erbia baino lehenago iritsi zen.

Pertsonaiak:

Dortoka eta erbia.

